

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 702/2016 Erabakia, azaroaren 3koa, Dionisio Gratal Pérez jauna laguntza berezia eskaintzeko behin-behineko langile kargutik kentzen duena, eta egindako lanarengatik eskerrak ematea

Azaroaren 17ko Diputatuen Kontseiluaren 639/2015 Erabakiaren bidez, Dionisio Gratal Pérez jauna laguntza berezia eskaintzeko behin-behineko langile izendatu zen.

Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/92 Foru Arauak 8.11 artikuluan eta Arabako Foru Aldundiko Goi Karguen eta Behin-behineko Langileen Erregimena arautzen duen otsailaren 21eko 4/2000 Foru Arauak 2. eta hurrengo artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, diputatuen kontseiluari dagokio diputatu nagusiaren edo eskumena duen diputatuaren proposamena entzun ondoren, konfiantzazko karguak edo/eta aholkulari bereziak aldi baterako izendatzea eta kargutik kentzea. Izendatu horiek foru aldundiko lanpostuen zerrendan horientzako gordetako lanpostuak beteko dituzte aldi batez.

Horregatik guztiagatik, Dionisio Gratal Pérez jauna kargu uztea ikusi da, Diputatu Nagusiak proposatuta, Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bileran aztertu ondoren, honakoa

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Dionisio Gratal Pérez jauna laguntza berezia eskaintzeko behin-behineko langile kargutik kentzea eta egindako lanarengatik eskerrak ematea.

Bigarrena. Erabaki honek 2016ko azaroaren 4tik aurrera izango du indarra.

Hirugarren. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko azaroaren 3a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE